EKONOMIA SOZIALISTA PLANIFIKATUAK

Barciela

COMÍN, F., HERNÁNDEZ, M. eta LLOPIS, E. (2013), Munduaren historia ekonomikoa. X.-XX. mendeak, 369-376 orr.

Bigarren mundu gerraren ondoren, eta armada sobietarraren aurreraldiaren ondorioz, ekialdeko Europako herrialdeetan sistema ekonomiko sozialista ezarri zen, Mendebaldeko ekonomia kapitalisten guztiz desberdina. Geroago, Txinan (1949), Kuban eta Asia eta Afrikako kolonia ohi batzuetan, 1970eko hamarraldia arte, erregimen komunistak ezarri ziren, sobietar sistemaren oinarrizko printzipioak zituztenak: jabetza pribatua osorik edo ia osorik ezabatu eta haren ordez estatuaren jabetza edo herri-jabetza ezartzea; plangintza zentralizatuko sistemak ezartzea, ondasun eta faktoreen esleipenean merkatua ordezteko asmoz; eta industrializazio bizkorreko programak, ikuspegi gutxi-asko autarkikoz. Hori guztia, diktadura-erregimen politikoekin batera: alderdi bakarra, eta poliziaren eta ideologiaren kontrol bortitza.

Bloke komunistaren esanahia eta garrantzia

Ezaugarriok V. I. Lenin-en zuzendaritzapean hasi ziren forma hartzen Sobietar Batasunean, baina J. Stalin boterera iritsitakoan (1922-1953) sendotu ziren. Alderdi Komunistak gizartea erabat kontrolatzea esan nahi zuen horrek —horregatik deitu izan zaio totalitarismo—, eta, 1928tik, plangintza zentralizatzeko erakundearen bitartez (Gosplan) antolatzea ekonomia: erakunde horren bost urteko planek banatzen zituzten baliabideak, finkatzen zituzten ondasun eta zerbitzu guztien prezioak eta produkzio-helburu batzuk, zeinak gero, behar izatera, polizia politikoak (KGB) galdatzen baitzituen. Planteamendu horiei esker, boltxebikeek uste zuten bermatuta geratuko zirela denentzako ongizatea, zientziaren eta kulturaren aurrerapena, eralgiketarik eza eta ziklo ekonomikoen amaiera.

Une hartatik aurrera, Europaren historia —eta, nolabait, munduarena— bi alde kontrajarritan banatu zen, eta kronologia berak ez du balio bientzat: kapitalismoaren urrezko aroa, 1973ko krisiarekin itxi zena, ez dator bat bloke sozialistako bizi-zikloarekin, zeinaren bilakaera 1989an eta 1991n amaitzen baita —Berlingo harresia erori zenean eta SESBek porrot egin zuenean, hurrenez hurren—. Adierazle makroekonomikoak ere ezin dira konparatu; izan ere, BPGaren zenbakiak, fidagarriagoak izateaz gainera, kontzeptu aldetik ere sobietar baliokidearenak —Gizarte Produktu Globalarenak (GPG)— ez bezalakoak dira. Adierazle hori, ez-produktibotzat jotako jarduerak (hau da, ondasun materialak sortzen ez dituzten gehienak) barne ez hartzeaz gainera, Estatuak arbitrarioki finkatutako prezioetan oinarritzen da. Horri sobietar estatistiken kalitate txarra gehituz gero, ulertzekoa da kontuz ibili behar hori nazioarteko konparaketak egiterakoan.

Oro har, esan daiteke ezen, gerra amaitu zenetik 1960ko hamarraldiko azken urteak arte, ekonomia sozialistek hedapen-etapa bat izan zutela, zeinean industria astunaren produkzioa handitzea lortu baitzuten — kostuez eta populazioaren kontsumo beharrez ez arduratzearen truke, ordea—, bai eta zenbait arrakasta ere eremu teknologiko deigarri batzuetan, hala nola militarrean edo espazioko lasterketan. Sobietar propaganda arrakasta horiez baliatu zen nazioartean zuen irudia hobetzeko.

Zeregin horretan, alderdi eta sindikatu komunisten laguntza izan zuen, oso indartsuak baitziren herrialde batzuetan, bai eta intelektual ospetsu batzuena ere, zeinek, maiz, begiak itxi baitzituzten sistema sozialistaren errealitatearen aurrean, edo onartu baitzuten hura zela nahitaez ordaindu beharrekoa gizarte berria ekartzekotan. 1970eko hamarralditik aurrera, eredu sobietarra agortzen ari zelako zantzu argiak hasi ziren agertzen, eta behin betiko porrota etorri zen 1980ko hamarraldiaren amaieran.

SESB existitze hutsak baldintzatu egin zituen nazioarteko jokabidea eta gizarte-harremanak berak herrialde kapitalisten baitan. Harritzekoa bada ere, esan daiteke komunismoaren onuradun nagusiak ez zirela izan sobietar langileak, baizik eta herrialde kapitalistetakoak. SESBen indarrak eta ospeak mundu osoan indartu zituen ezkerreko sindikatuak eta alderdiak, eta enpresaburuak eta gobernuak behartu zituen langileen arazo eta aldarrikapenei arreta handiagoa jartzera. Azken batean, kapitalismoaren urrezko urteak eta sozialismoaren urte onenak bateratsu gertatu ziren, nolabait, baina blokeen arteko lehia ustekabean eta bat-batean amaitu zen, gizadiaren etorkizuna berak zekarrela aldarrikatutako sistemak porrot egin zuenean.

Gerra eta berreraikuntza SESBen

Bigarren mundu gerra oso suntsitzailea izan zen, eta SESB izan zen ondorio okerrenak jasan zituen herrialdea. Stalin-en aurreikuspenik ezak eta garbiketa politikoek, militar gaitu asko hil, kendu edo kartzelaratu baitzituzten, aurrerabidea erraztu zieten alemanei hasieran, baina, azkenean, SESBek galera handiak izan eta produkzio-ahalegin itzela egin ondoren, armada nazi ahaltsua garaitzea lortu zuen. Gerraren kostuak egundokoak izan ziren: 30 milioi hildako inguru (kopuru ofizialen arabera), zuzeneko eta zeharkako biktimak batuta; haiei, milioika zauritu, elbarri eta umezurtz gehitu behar zaizkie. Kostu materialen artean, honako hauek nabarmenduko ditugu: 31.850 industria-instalazio erabat edo partez suntsituta; 65.000 km trenbide baino gehiago eta 4.100 geltoki zerbitzuz kanpo: eta egundoko hondamendia nekazaritzan (etxaldeak, uztak, makineria, lan-abereak eta aziendak). **Gerraren zuzeneko kostuak 128.000 dolarretan kalkulatu** ziren, eta gerraren kostuak, guztira, 357.000 milioitan (sobietarren datuen arabera, betiere). Aliatuek gerra irabazi izanak, dena den, ekarri zuen etekinik ere. SESBek 670.000 km2 gehiago eta 24 milioi biztanle erantsi zizkien bere lurraldeei. Ondasun asko konfiskatu eta gerrako kalteak ordaintzera behartu zituen Alemania eta haren aliatuak, eta gainera sobietar armada ekialdeko Europan edukitzearen kostuak ordaintzera behartu zituen. Politikaren arloan, nazien kontrako garaipenak erruz sustatu zuen abertzaletasuna, sobietar erregimenaren eta Stalin-en beraren mesedetan.

Datuen kalitateak zaildu egiten du jakitea nola suspertu zen sobietar ekonomia. IV. Bost Urteko Planak (1946-1950) lehentasun osoa ematen zion energia-oinarria, metalurgiako enpresak, trenbideak eta errepideak berrezartzeari, berriz ere plangintzaren jokaera zentralizatzaile eta autoritarioetara itzuliz. Sobietarren iturrien arabera, 1948rako industriak gainditua zuen gerra aurreko produkzioa, eta badirudi urte horietan milaka industria-enpresa sortu zirela, eta hiru milioi langile baino gehiagok emendatu zutela lan-indarra. Eraberritu ezin zen industria-aparatua, Errusiatik kanpoko eskualdeak industrializatu ziren, petrolio-produkziorako eskualdeak zabaldu ziren, zentral hidroelektrikoak, kanalak eta gasbideak eraiki ziren, eta nekazaritzaren kolektibizazioa osatu zen. Ekonomiaren susperraldiaren abiadurari buruzko eztabaidaz landara, autore guztiak bat datoz esatean gizarte-kostua izugarria izan zela populazioaren gehiengoaren ongizateari dagokionez.

Sobietarrek oso gogor lan egin zuten industria suspertzeko, eta gainera gastu militar eskergaren pisua jasan behar izan zuten. Armada Gorriak lau edo bost milioi soldadu izan zituen gerraondoan, zertarako eta Estatu Batuen nagusitasun estrategikoa orekatzeko, Baltikoko, Ukrainako eta Moldaviako nazionalistak borrokatzeko, eta okupatutako herrialdeak kontrolatzeko. Baina dena ez zen zenbaki-kontua. Armada presio-talde garrantzitsua bihurtu zen, eta nazismoaren kontra lortutako garaipenaren itzalak militartu egin zituen gizartea eta kultura. Giro horretan, sobietarrek lehen erreaktore atomikoa eraiki zuten 1946an, 1949an bonba atomikoa, eta 1953an hidrogeno-bonba. Hasia zen mehatxu nuklearraren aroa.

Bloke sozialistako ekonomien hazkunde desorekatua

Beren armadak okupatutako herrialdeetan, sobietarrek, zenbait gorabeheraren ondoren (iruzurrez moldatutako hauteskundeak, estatu-kolpeak, inposizio militarra), sobietar sozialismoaren printzipioetan oinarritutako erregimen komunistak ezarri zituzten. Arrazoi ideologikoengatik eta Mendebaldeko herrialdeen pare lehenbailehen jartzeko. Ekialdeko bloke osoan lehentasuna eman zitzaien industria astunari, makineria fabrikatzeari, oinarrizko kimikari eta elektronikari, eta hori nekazaritzaren eta kontsumo-ondasunen industriaren kaltetan izan zen. SESBen bezala, hautatu zen ereduak estualdi eta gabezia handietara behartzen zuen populazio gehiena, etorkizuneko belaunaldiek ustez izango zuten ongizatearen truke. Bestalde, nazionalizazio ekonomikoaren prozesua, jabetza pribatua ezeztatzekoa, 1950 inguruan burutu zen industrian eta zerbitzuetan. Nekazaritzan arazo-gehiago izan ziren: hasierako nekazaritza-erreformek nekazarien artean banatu zuten jabetza, eta, hala, geroago egin ziren kolektibizatze-saioek haien kontrakarra izan zuten, beren jabetza galdu nahi ez eta. Ondorioz, desberdintasun handiak sortu ziren kolektibizazioa erabat burutu zuten herrialde gehienen eta horretan porrot egin zuten beste batzuen artean (Jugoslavia eta Polonia ziren bigarren taldekoak). Ekonomiaren plangintza zentralari dagokionez, herrialde batetik bestera aldeak bazeuden ere, zenbait erakunde sortu ziren, kontsumo-mailak, aurrezkia eta inbertsioa eta kontsumo-ondasunen eta kapitalaren produkzioak erabakitzeko. Eurasiako kontinentearen beste muturrean, 1949tik aurrera, Mao Zedong-ek gidatutako komunistak garaile atera zirenean, sobietar erako erregimen sozialista bat ezarri zen Txinan ere, baina bere ezaugarriak zituena. Gerrate luze baten ondoren, berreraikuntza ekonomikoa oso bizkorra izan zen, eta, 1953 eta 1965 artean, Txinak goraldi ekonomiko nabarmena izan zuen, bai eta jabetza kolektibizatzeko prozesu bat ere, SESBenaren oso antzekoa lorpenetan zein porrotetan. Lorpenen artean, industria astuna, herri-lanak, trenbideak eta hirien hedapena. Porrotik handiena, berriz, nekazaritzak izan zuen han ere.

Oso zaila da hazkundearen tamaina zehaztea ekonomia horietan, eskura ditugun datuez baliatuta. Azken urteotan, adituak serie estatistiko zuzenduak eskaintzen saiatu dira, baina oraindik ere ez dira askiesteko modukoak. Informazio eguneratuenaren bidez (ikus 8.21 laukia), esan liteke, D. Aldcroft-ek dioen bezala, Europako herrialde sozialistek «1950 eta 1960ko hamarraldietan Mendebaldeko Europak baino emaitza ekonomiko hobeak» lortu zituztela. Hazkundea, aldeak alde, orokorra izan zen herrialde guztietan, eta ezaugarri hauek izan zituen: oinarrizko industria- produkzioaren nagusitasuna eta nekazaritzako emaitzak txarrak. Datu horietatik ateratzen den irudia, ordea, ez dator bat ekialdeko Europako herritarren bizi-maila apalari buruz dagoen informazio askotarikoarekin; maiz izan ziren elikagai-krisiak, grebak eta protestak, nahiz eta herritarrek askatasunik ez izan eta errepresio gogorra jasan. Lekukotza asko daude kontsumo-ondasunen kalitate eskasaz eta aukera urriez, eta haiek lortzeko pena eta nekeez (errazionamendua eta ilaran egon beharra). Bestetik,

Ekialdeko hiritarrek bermatua zuten enplegua, nahiz eta txarra eta produktibitaterik gabekoa izan, bai eta oinarrizko zerbitzu batzuk ere osasunean eta hezkuntzan, doan edo ia doan. Alderdi materialei erregimen politiko komunisten diktadura-izaera gehituz gero, ia sarkasmoa da ongizateaz hitz egitea.

8.21 laukia. Per capita BPG (1990eko nazioarteko dolarrak)

	1950	1973	Urteko hazkunde-tasa batez beste
Albania	1.001	2.252	6,49
Bulgaria	1.651	5.284	5,98
Errumania	1.182	3.477	5,92
Hungaria	2.480	5.596	4,10
Jugoslavia	1.585	4.350	5,62
Polonia	2.447	5.340	4,78
Txekoslovakia	3.501	7.041	3,81
Ekialdeko Europa guztira	2.120	4.985	4,86
SESB	2.834	6.058	4,84

Iturria: Maddison (2002, 185)

Mendebaldean gertatuaz bestera, herrialde sozialistetan hazkundea estentsiboa izan zen batez ere. Populazioa gehiago emendatzeari, legez langabeziarik ez izateari, emakumea lan-mundura masiboki sartzeari eta lan-egunaren luzeari esker, lan faktoreak ekarpen handia egin zion produkzio-sistemari. Asko hazi ziren, halaber, industria-sektoreko kapital finkoa (ziur asko, urteko tasa %10en inguruan ibiliko zen), eta SESBen baliabide natural aberatsen ustiapena. Laburtuz, hazkundea dezentea izan zen herrialde sozialistetan, estentsiboa, industria astunetan zentratua, eta emaitza eskasekoa herritarren bizi-maila hobetzearen ikuspuntutik.

Teorian sistemak abantailak izan arren — hori aldarrikatzen zen ofizialki —, kontua da sobietar ekonomiak arazo larriak agertu zituela baita 1950 eta 1960ko hamarraldietan ere. Lehenik eta behin, plangintzak porrot egin zuelako, nahiz eta gauzatu ahala zuzenketak sartu planetan. Oinarrizko industrian eta industria militarrean, oro har, lortu ziren helburuak (edo gainditu; desorekaren beste era bat da hori); porrot egin zuten, ordea, nekazaritzak eta ekipamendu eta familien kontsumoko sektoreek, eta batez ere produkzioaren kalitateak eta langileak ekonomiaren martxan inplikatzeak. Ondorioz, lanaren produktibitatea ia ez zen handitu.

Herrialde sozialisten arteko lankidetza ekonomikoak ere porrot egin zuen erabat. Arrazoi nagusia ekonomia haien joera autarkikoa izan zen: denek, baita txikienek ere, industrializazio handia lortu nahi zuten, oinarrizko sektore guztietan gainera, kontuan hartu gabe nazioarteko espezializazioak ekar zitzakeen abantailak. Bigarrenik, bloke sozialista ez zen oinarritu berdinen arteko lankidetzan; SESBen zerbitzuan eratu zen. 1950eko hamarraldiaren amaiera aldera, Mendebaldearekiko eten teknologikoa handitzeak eta Europako Merkatu Komuna sortzeak COMECON (Elkarren Laguntza Ekonomikorako Batzordea, SESBen eta sobietarren inguruko herrialdeen artean) berpiztera behartu zituzten sobietarrak. Kanpo-merkataritzak hobera egin zuen, baina, plangintzaren nazioarteko

koordinazioaren arrakastagatik baino gehiago, hazkunde ekonomikoagatik, koordinazioan ez baitirudi asko aurreratu zenik.

Azkenik, ongizate helburuek porrotik handiena izan zuten. Planetan adierazpen hanpatsuak egin arren —oporrak eta apartamenduak denentzat, SESB munduko lehen industria-potentzia 1970erako —, urte hartan, baita sobietarren datuen arabera ere, industria-produkzioa Estatu Batuenaren %75 zen, eta nazio-errenta %65. Elikagaien mailaz eta kontsumo-ondasun batzuen hedapenaz ditugun ebidentzien arabera, esan dezakegu sobietarren eta mendebaldarren arteko aldeak itzelak zirela ongizateari dagokionez. Sistema erreformatzen behin eta berriz saiatzea ere beste adierazle argi bat da: emaitzak ez ziren propagandak aldarrikatzen zituenak (ikus 8.2 irudia). Txinan ere, non inarrosaldi bortitzen etapa bati eman baitzitzaion hasiera 1966an «kultura- iraultza» zeritzonari ekin zionean, arazo ekonomiko larriak agertu ziren. SESBen bezala, Txinan ere plangintzak ez zuen funtzionatu, eta akats berberak egin zituzten, aurreikuspen gabezia eta birplanteamendu berberak. Bi kasuetan, nekazaritzak jasan zuen porrotik handiena.

1953ko udazkenean, txosten ofizial batek egiaztatu zuen SESBeko nekazaritza geldialdian zegoela, industrian itxuraz ziren arrakastez bestera. Gerrako suntsiketez gainera, agintariek zenbait akats ere onartzen zituzten (hura bai gauza berria), hala nola prezioen politikaren desegokitasuna, inbertsio-eskasia, kolkhoz-tarren (kolkhoz izeneko etxalde kolektibizatuetako nekazarien) soldata erreal apalak, makineria zahartuaren gabeziak, administrazio-akatsak eta planen kalkulu-akatsak. N. Khrustxev-en nekazaritza-politikak, Stalin hil eta gero, arazo horiek konpontzea hartu zuen helburutzat. Horretarako, kolkhozen tamaina handitu zen, prezioak jaso eta inbertsioak gehitu ziren (makineria-hornikuntza barne), zergak jaitsi eta nekazaritza-planak eraberritu. Hala eta guztiz ere, egoerak ez zuen hobera egin.

Funtsezko arazo bat, plan-egileek inoiz konpondu ez zutena, langileen soldatena izan zen. Ofizialki onartu bezala, kolkhozek «bide luzea egina zuten lana ordaintzeko modu arrazionalen bila, hasi familiakideen kopuruen araberako birbanaketa berdintasunezkotik eta oraingo moduetaraino: diru-ordainketa erregular eta bermatuaren bidez... eta lanaren kantitatearen eta kalitatearen arabera» (Avsenev et al., 246). Bide luze haren buruan, ezinbestean, lana banakoen eta produktibitatearen arabera ordaindu behar zela onartzea zegoen, nahiz eta emaitza hori ez izan politikoki onargarria Alderdi Komunistarentzat.

Nekazaritza-krisia endemikoa izan zen SESBen, eta nekazari eta herritarrentzako arazoez «gainera, beste ondorio oso kaltegarri batzuk izan zituen sobietar ekonomiarentzat, hala nola estatu- errentek behera egitea eta, bereziki kanpo-merkataritzaren krisia. 1965etik aurrera, SESBek oinarrizko elikagaiak inportatu behar izan zituen, eta horrek urretan dirutza handiak ordaintzea zekarren. Hori guztia lehengaien krisiaren ateetan gertatu zen; krisiak oso egoera larrian jarri zituen SESBen hornikuntzak 1970eko hamarraldian. Paradoxa bada ere, amerikar etsaiaren aletegiek salbatu zituzten sobietarrak gosetetik. Arazo ekonomikoak sektore guztiei eragin zien. Datu ofizial berberetan jasotzen da GPGaren hazkunde-tasak gero eta txikiagoak zirela. Egoera hartan, eskakizun militarrei erantzun zitzaien, eta sistematikoki atzeratu zen herritarren bizi-maila jasotzea. Zergatik gertatu zen gainbehera?

Eredu komunistaren porrotaren kausak

Kausak asko dira, eta zehazten zailak, era askotako faktoreak nahasten direlako: ekonomikoak, politikoak, sozialak eta baita geografikoak ere. Nagusiak, gastu militarraren pisua, batetik, eta baliabideak eta errentak banatzeko sistema arbitrarioek eragindako eralgitzeak eta eraginkortasunik eza, bestetik. Orokorrago hartuta, porrot ekonomikoa langileek sistema ekonomiko totalitario eta bidegabe baten aurrean zuten jarrera negatiboaren ondorio izan zen. Egia da, halaber, milioika militante komunistak, batez ere Komsomol-eko gazteriako kideek, zuten guztia emanez jardun zutela komunismoaren eraikuntzan, sinetsirik gizadiaren etorkizun hobe baten alde ari zirela; halaxe islatu zuen, maisuki, M. Sholojov-ek Soro luberrituak eleberrian. Hala eta guztiz ere, boluntarismoa eta estajanovismoa (lana produktibitatea handitzeko helburuz aztertzen duen metodo bat, eta hori lortzeko propaganda-mugimendua) ezin ziren izan aldi baterako soluzioak baizik. Ongizate materialaren maila on bat lortzeko egindako promesak behin eta berriz atzeratzen zirenez, sobietar herritarrek fedea galdu zuten pixkanaka 1917ko iraultzaren idealetan.

Munduko potentzia bihurtzeak behartu zuen SESB, lurralde ia mugagabe hura defendatzera ez ezik, herrialde sateliteak militarki kontrolatzera eta bere eragina munduan hedatzen saiatzera. Gerra hotzak ahalegin ekonomiko izugarria eskatu zion; uneren batean, nazio-errentaren %25eraino ere iritsiko zen, Ikerkuntza militarrerako, baliabide ugari eta langile, ingeniari eta zuzendaririk onenak erabiltzen ziren, milaka instalazio sekretutan banatuta.

Eraginkortasunik ezari buruz, adibide nabarmen bat jartzeko, kalkulatu da sobietar ekonomiak bi edo hiru aldiz energia gehiago kontsumitzen zuela produktu-unitateko, herrialde kapitalista aurreratuek baino. Eredu estentsiboek —lan hidrauliko handiak, langileak masiboki erabiltzea, naturaren suntsipena— ez zieten kasurik egiten ez kostuak razionalizatzeari ez etekinak lortzeari; izan ere, batzuk zein besteak, prezioak bezala, arbitrarioki ezartzen zituen planak. Produkzio- helburuak nahierara edo intuizio hutsez ezartzen ziren, «aukera-kostua» nozioa aintzat hartu gabe.

Produktibitatea hobetzeko, berrikuntzak egin eta giza kapitala hobetu beharko zen, eta hori ezin zen bateratu nagusi ziren autoritarismo eta dogmatismoarekin. Ez zegoen pizgarririk berrikuntzarako, eta jarrera otzana izatea zen komenigarriena. Gosplan-eko burokratek errutina hutsez esleitzen zizkieten baliabideak oinarrizko sektore tradizionalei, aintzat hartu gabe ekonomiaren adar berrien premiak: zibernetikarenak, genetikarenak edo zientzia ekonomikoarenak berarenak. Lehentasuna zuten sektoreetan ere, hala nola nuklearrean edo espazioko lasterketarenean, hasierako distiraren ondotik laster agertu ziren geldialdi nabarmen baten zantzuak.

Berdintasunaren ikuspuntutik ere, sistema sozialistek ez zituzten lortu teorian helburu nagusi zituztenak. Bermatu ziren zenbait zerbitzu oinarrizko, hala nola hezkuntza, osasuna edo enplegua, baina langile gehienak azpitik berdindu ziren. Gehiengoaren gainetik, gutxiengo oso txiki batek, nomenklaturak, abantaila politikoak eta materialak lortzeko erabiltzen zuen Alderdi Komunistan, Estatuan edo armadan zuen posizioa, herritar gehienen eskumenetik at zeuden abantailak. A. Gide-k bete-betean asmatu zuen bere diagnostiko tragikoan: sobietar herri loriosetik aprobetxategiak, borreroak eta biktimak besterik ez ziren geratu.

Arazoek oso konponbide zaila zuten sistema sobietarraren barruan, sistemaren izaerari berari baitzegozkion. Konpontzeak erreformak eskatzen zituen, hau da, erabakimena burokraziari kendu eta

enpresen esku uztea, eta kapitalistatzat jotzen ziren kategoriak eta erlazioak sartzea (soldatak, etekinak, autofinantziazioa). Gauza bera esan daiteke eskaintzaren eta eskariaren arteko desoreka larriez ere: plangintza bihurrituz konpondu nahi ziren, konponbide arrazoizko eta eraginkorrenera jo ordez: produktuen merkatuak berrezartzea. Beharrezkoa zen eragile ekonomiko guztiek askatasun, autonomia eta ardura gehiagoz jardutea, baina sistema sobietarra, hain zuzen, horren kontrakoa zen. Izan ere, M. Gorbatxov-en perestroikaren liberalizatze-neurri herabeek atera zituzten argitara kontraesanok, 1987tik aurrera, eta, une gutxiren buruan, kolapsora eraman zituzten SESB eta sobietar bloke osoa. Txina, azken hamarraldietan bere bidetik ibilia baitzen, beste modu batez bilakatu zen, kapitalismoa Alderdi Komunistaren kontrolpean edukiz, eta Fidel Castroren Kuba geratzen da oraindik ere, ezin konta ahala zailtasunen artean, iraganeko garaien aztarna gisa.